Hernaniko Udala

OSOKO BILKURA

HERNANIKO UDALAK 2026KO APIRILAREN 28AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

ALKATEA:
Xabier Lertxundi Asteasuinzarra

ALKATEORDEAK:
Itsaso Lekuona Legorburu
Patxi Ibarguren Etxeberria
Ainara Atorrasagasti Urizar
Aitor Lukas Solano

ZINEGOTZIAK:
Axier Mingo Arruabarrena
Amaia Miner Canflanca
Aitor Huizi Izagirre
Urko Lazkoz Fernandes
Oier Agirresarobe Lizaso
Kistiñe Rodríguez Polaina
Andoni Amonarraiz Gómez
José Antonio Cuesta Solé
Blanca Alberro Aranzasti
Myryam Vázquez Vecino
Mikel Gurutzeaga Zubillaga
Ismael Ganchegui González
Ricardo Crespo Rubio
María Jesús Ruiz Ochoa
Jaione Aristregi Cao
Lurdes López Gorrotxategi

BITARTEKO UDAL IDAZKARIA:
Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa

2026ko apirilaren 28an osoko bilkura egin da udaletxean, arratsaldeko 18:00etan, aurrez deialdia egina zegoelarik. Bilera Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako zinegotziak eta neu, Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa bitrateko udal-idazkaria.

Gai zerrenda:

1. 2026-03-31KO OSOKO BILKURAKO 03-2026 AKTA ONARTZEA.
2. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR00688 DEKRETUTIK 2026DEKR0977 DEKRETURA.
3. LEH.03 EREMUAN HIRIGINTZA HITZARMENAREN ONARPENA.
4. PLAN EKONOMIKO FINANTZIARIOAREN ONARPENA.
5. HERNANIKO UDALEKO ZARATA-MAPA EGUNERATUAREN BEHIN BETIKO ONARPENA
6. HIRIGINTZA ANTOLAMENDUAREN OSAGARRI DEN ORDENANTZAREN ALDAKETA. BEHIN BETIKO ONARPENA.
7. ELKARREKIN PODEMOSEK APIRILAREN 14AREN HARIRA AURKEZTUTAKO MOZIOA: MEMORIA DEMOKRATIKOA, 1931KO KORPORAZIOARI AITORTZA ETA BALIO ERREPUBLIKANOEN DEFENTSA.
8. EHBILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GUNE HISTORIKOA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN (GHBPB / PERCH) INGURUKO MOZIOA.
9. GALDERA ETA ESKARIAK.

1. 2026-03-31KO OSOKO BILKURAKO 03-2026 AKTA ONARTZEA.

Alkatea.— Arratsalde on, seiak badira eta hasiera emango diogu gaurko osoko bilkurari.

Ohikoa den bezala, aurreko osoko bilkurako aktaren onartzearekin hasiko gara. Ez dakit aktaren inguruan ba ote dagoen zerbait aipatzeko. Ez? Beraz, onartutzat emango dugu.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA 2025DEKR00688 DEKRETUTIK 2026DEKR0977 DEKRETURA.

Alkatea.— Bigarren puntua ere hilabetero ekartzen duguna da, hilabete honetan zehar, aurreko osoko bilkuratik orain egun batzuk arte egin diren dekretuen zerrendaren berri ematea da. Kasu honetan, 688 dekretu zenbakitik 977 dekretu zenbakira egin dira. Ez dakit dekreturen baten inguruan zalantzarik, galderarik edo zerbait badagoen... Ez badago ezer, aurrera jarraituko dugu.

3. LEH.03 EREMUAN HIRIGINTZA HITZARMENAREN ONARPENA

Alkatea.—Erabakitzeko gaiekin hasiko gara.

Erabakitzekoen artean lehenengo puntua LEH.03 edo Kanpozabal harrobi eremuan hirigintza hitzarmenaren behin-betiko onarpena ematea litzateke. Kasu honetan, esan, hirigintza hitzarmen honen oinarrian badagoela Hernaniko Udalaren eta Ekotradek enpresaren artean sinatutako

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

lankidetza hitzarmena Ekoland proiektua aurrera eramateko. Eta lankidetza hitzarmen hori aurreko urriko osoko bilkuran azaldu genuen, horren lanketak hilabete dezenteko lanketak izan dira, eta azkenean plenoan nolabait ere onartu genuen.

Kasu honetan, behin lankidetza hitzarmen horretatik abiatuta, hirigintza tramiteei abiapuntua jarri genien horrekin, eta tokatzen zen lehen tramitea gaur eskuartean daukaguna da: hirigintza hitzarmena egitea eta onartzea.

Hirigintza hitzarmenari behin-behineko onarpena abenduan eman genion, urtarrilaren 21ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, jendaurrean egon da legeak eskatzen duen bezala 20 egunez, eta hor alegazioak jaso dira. Gaur formalki egiten duguna da gure zerbitzu juridikoek alegazio horiei emandako erantzunak onartu eta behin-betiko onarpena eman hirigintza hitzarmenari. Alegazio hauek guztiak pasa den asteko ostegunean izan genuen Tokiko Garapen Batzordean batzordekideei pasa zitzaizkizuen eta hirigintzako zerbitzu juridikoko burua ere bertan izan zen eta azaldu zituen erantzun horiek nondik nora zihoazen. Txosten potoloa da, oso juridiko eta teknikoa, eta banan-banan azaltzen ez naiz hasiko. Baina bai, nolabait ere, aipatu nondik nora joan diren alegazio hauek.

Esan, alegazioak nolabait ere lau pertsona juridiko edo fisikoren partetik jasotako alegazioak izan direla. EAJren kasuan bi desberdin izan dira, Jauregiko bizilagunen izenean beste bat eta gero beste bi, baina baten izenean hartu dena, pertsona fisiko baten izenean egin dena. Hauekin, esan, zerbitzu juridikoek egin duten azterketa juridiko honetan eta egin diren alegazioetan batzuk onartzen dira eta beste batzuk ez, eta horiei erantzuna ematen zaie. Onartzen direnen kasuan, kasu batean, gaztelerazko bertsioan akatsa zegoen eta zuzenketa hori egingo da. Ondoren, beste bi partzialki-edo onartzen dira eta horrek egingo duena da behin-behinean onartu genuen dokumentu edo hirigintza hitzarmen horri aldaketa bat eta bi xedapen gehigarri: seigarren eta zazpigarrena gehituko zaizkio. Bi hauek dira, nolabait ere, alegazio batetik jasotako ekarpenak. Seigarrenari dagokionez, txertatuko dena da, EAJren eskariz, nolabaiteko testu bat. Ingurumen baimena izapidetzean Jauregi bailaran aire atmosferikoaren kalitatea neurtzeko estazio bat instalatzeko eskatzea Eusko Jaurlaritzari. Eta, zazpigarren xedapenean, hau bizilagunen elkarteak aipatzen zuen, nolabaiteko betebeharrak hartzen ari ote zen Hernaniko Udala, gero kontrara etorri zitezkeenak. Beraz, txertatzen dena da, juridikoki ez zuten aurreikusten hori horrela zenik, baina lasaitasunerako edo azpimarratuko litzateke zazpigarren xedapen gehigarrian, esanez hitzarmenean aurreikusten den arau subsidiarioan aldaketa puntuala onartuko ez balitz, Ekotradek enpresak uko egiten diola edozein erreklamazio egiteari.

Orduan, egin diren alegazio guztietatik aldaketa horiek txertatuko dira behin-behineko testu horretan. Gainontzeko alegazioei dagokienez, banan-banan erantzun zaie. Gaur onartzen ditugunean alegazio-egile guztiei berearen erantzuna bidaliko zaie. Ezeztearen arrazoiak oso gainetik aipatzearren, kasu gehienetan egin diren alegazioak ez zetozen bat hirigintza hitzarmenak daukan izaera juridiko eta irismenarekin. Alegazio horiek agian aurrerago datozen prozesuetan egin beharrekoak ziren eta ez hirigintza hitzarmenari. Eta, beste kasu batean, eta txostenean hala aipatzen du sinatu duen teknikariak ere, kasu batzuetan iritzi-emate batzuk ere bazeuden esaten dutenak teknikoki ez dagokiola horiei erantzutea.

Orduan, esandakoa, gaur egiten duguna da alegazio horien erantzunak onartu, onartu diren alegazio horietatik behin-behineko testuari aldaketa horiek txertatu eta behin-betiko testua onartuko genuke.

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

Hernaniko Udala

Honen inguruan, pentsatzen dut, nahiko dela zerbait aipatu. Talde politikoen erronda irekiko dugu, beti bezala txikitik hasita.

Jaione Aristregi: Kaixo, arratsalde on. Gure taldeak hasieratik adierazi du ez dagoela ados lurzoru kutsatuak, indusketa eta obretako hondakinak tratatzeko instalazio bat jartzearekin, Jauregiko biobanaketa-teknikaren bidez. Ez bakarrik jada ezagunak diren arrazoiengatik, hala nola landa-ingurunea delako eta gutxi gorabehera 10 metroko altuera duten bost eraikin eraikiko direlako, 30.000 m^2 inguruko eremu bati eraginez, gehiago ez badira. Kamioien joan-etorria jasanezina izango delako Jauregin bizi direnen eta askotan inguru horretan paseatzen dugunon bizitzaren lasaitasunerako. Edo lurzoruetan gerta daitezkeen filtrazioengatik, baldin eta eremuko akuiferoak kutsatzen badituzte.

Orain iragazki bereziak dituzten aire-neurgailuak jarriko dira. Horrek, lasaitu beharrean, are gehiago kezkatzen gaitu, Udalak beste kutsadura mota bat egon daitekeela susmatzen baitu. Horregatik, gu kontra gaude.

Ricardo Crespo: Eztabaida hau jada izan genuen duela hilabete batzuk. Uste dut alderdi guztiek gure jarrera bertan azaldu genuela eta, bakarrik esatea, batzordean esan nuen bezala, orain hau hitzarmena bakarrik dela. Uste dut Alkateak ez duela komentatu, hemendik aurrera plangintza moldatu behar baldin bada, prozesu hori guztia hasiko dela. Eta prozesu horretan ere alegazioak eta neurriak jarri behar baldin badira jarriko dira, eta ikusiko dugu ea prozesu hori burutzen den edo ez.

Mikel Gurutzeaga: Arratsalde on. Alkateak esan bezala, guk bi alegazio sartu ditugu, onartu dira eta izapidearen pauso berri honetan aurrera egiteko beti hobekuntzak sartzen ahalegindu gara eta horrela jarraituko dugu hurrengo pausoetan ere.

Alkatea: Eskerrik asko. Gauza askorik esateko ez, aipatu den kezkaren inguruan, esan Hernaniko Udalaren bai arlo politikotik eta bai arlo teknikotik, ez dagoela kezkarik eta ez dela horregatik txertatzen klausula hori; alegazio bat egon delako eta juridikoki ontzat ematen delako da. Baina, lehen esan dena, hemen garrantzitsua da jakitea kontu urbanistikoa arautzen ari garela momentu honetan edo nolabaiteko oinarri bat jartzen, baina honek tramite luze bat badaukala bere ingurumen-inpaktu guztia baloratuko duena ingurumen-organoak, hau da, Eusko Jaurlaritzak. Proiektu guztia enpresak osatu beharko du eta Eusko Jaurlaritzak neurtu beharko du hori guztia. Hau ez da inongo kezkatik egin, baizik eta ekarpen bat egin da ontzat ematen dena eta inkorporatzen dena. Baina, gero, ingurumen-organo ebaluatzailea, hau da, Eusko Jaurlaritza izango dela erabakiko duena hau jartzen duen edo ez; azkenean berak neurtzen dituelako edo jartzen dituelako baldintza horiek guztiak. Baina, kezkatik baino, eta baita bizilagunei ere, lasaitasuna transmititzeko eta modu garden batean jokatzeko eta gardentasunez, datu guztiak izateko. Eta, ez bakarrik eremu horretan, Ekoland proiektua martxan jartzen delako, baizik eta zenbat eta aire neurgailu gehiago eduki gure herrian ere, uste dugu positiboa dela. Baditugu hiru, oker ez banago, jada badaudenak; eta zenbat eta gehiago eduki, nik uste dut gure herriaren errealitatea erakutsiko digutela eta positiboa dela.

Ez dakit bigarren erronda bat beharrezkoa ote den. Bizilagunen batzuk bazaudete eta ez dakit zerbait aipatu nahi duzuen. Hitza emateko aukera badago. Bestela, guk bozketarekin jarraituko dugu.

Mariaje (publikotik): Ez nator inoren ordezkari bezala, Jauregiko bizilagun bezala. Bi gauza bakarrik. Eskerrak ematea Udalari borroka luze honetan asko ikasi dudalako amari galdetuz zergatik duen izena Kanpozabal eremua, Kanpozabalgo harrobia, Kanpozabal baserria goiko puntan baldin

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

badago... eta azalpenak. Kanpozabal harrobia eraiki zutenean zintzilik gelditu zelako erortze-arriskuan eta berria, guk etxean oraindik Kanpozabal deitzen dioguna gaur egun Zubillagaenea dena.

Prozesuan asko ikasi dut ingurugiroan batzuk ikusi ditut desagertzen, gurasoek ikusi zuten desagertzen Marijuandegi, (...), beste baserri batzuk... Nik ikusi ditut desagertzen Ekogor, Galarreta, eta beste batzuk. Eta horretan darraigu. Orain, berriro ere, plangintza honek errepidea pasako da dagoen belardi gutxi horietako batetik, eta gero eta gehiago dira belardiak lehen ziren garaian errepide, makro azpiegitura, eta gainontzeko. Gaur berriro ere buletinean azaldu da (...) inguru horretan berriro ere anaiari esan diot: "a, bai, hor lehen (...)-go ardiak ibiltzen ziren bazkan". Orain, berriro, etxeak egingo dira. Eta horretan darraigu.

Asko ikasi dut Hariak zinemaldian, Berta Cáceresek Hondurasen babestu behar direla lur-soroak, urak... Hemen ere bai. Mesedez. Eta birpentsatu, oraindik garaiz gaude, errepideak egin beharrean, eta ados nago ekonomia zirkularraren historia honekin guztiarekin; baina estrategia eta elikadura burujabetza, eta bihar adibidez Urbieta kalean egongo diren elikadura jasangarriari lotutako ekintzak... jasangarritasuna, ingurugiroa, irisgarritasuna... hori guztia oso ondo dago, baina gu askoz ere aldekoago gara, zuen leloa ere bada, gure lurra, gure jatekoa. Mesedez, horrekin jarraitu.

Eskerrik asko.

Alkatea: Eskerrik asko zuri. Eta eskertzen dizut aipatu dituzun kontuak aipatzea, zeren uste dut proiektu hau lerrokatuta badoala horrekin guztiarekin. Ekoland proiektua badoalako aurretik asko eraldatutako lur-zoru batean, eta horren berreskurapena eta legeak eta ekonomia zirkularrean oinarrituta eta horrelako proiektuak halako lurguneetan jartzea lehenesten duelako. Eta, esaten duzu, bere garaian harrobia eta Kanpozabal zergatik izena duen, zintzilik gelditu zela bere garaian... Esku-hartze honi esker, gaur egun ere pareta hori hobeto eutsiko da. Arazo batzuk badaudelako eta aurrekoan ere batzordean ere esan genizuen, Jarraipen Batzordea jada martxan dago eta bizilagunen ordezkaritzak ere parte hartu du. hor ere aipatu genuen, oraindik proiektuaren erredakzioa falta da, horren guztiaren tramitazioa, eta hor proiektu hori zehatz-mehatz egiten denean, ikusiko dira egingo diren esku-hartzeak. Eta esku-hartze horiek beti izango dira gaur egun Kanpozabal eremuan dagoen egoera hobetzeko. Paretaren, eta bere garaian egin ziren betelanei begira, baita lur-azpian dagoen akuiferoari begira.

Orduan, eskertzen dizut egindako ekarpena, uste baitut ez gaudela hain urruti denok ere dauzkagun helburuekin eta dauzkagun oinarriekin.

Mariaje (publikotik): Beste aukera bat da, juridikoki ez didazue momentuz irabaziko, baina azpiegitura berdeen inguruko aukera horietan beste bat da kutsatuta zegoena bere horretara bueltatzea eta bere horretan uztea. Hori ere aukera dela gogorarazi, eta ez gaitezen itsutu, eta zorionak, bide batez, joan den astean 4. izarra lortu dugulako Zero Waste Certificate City izango gara. Izarrak izango ditugu munduko guztiak, baina jatekorik non sortu ez dugu izango martxa honetan.

Eskerrik asko.

Alkatea: Eskerrik asko zuri.

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

Hernaniko Udala

Honekin, bozkatzera pasako gara. LEH.03 edo Kanpozabal eremuan hirigintza hitzarmenaren behin-betiko onarpenaren aldeko botoak? EH Bildu, EAJ eta Euskal Sozialistak udal taldeenak. Kontrako botoak? Elkarrekin-Podemos udal taldearenak.

Bozketaren emaitza

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	19	1. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. (EHBildu) 2. Itsaso Lekuona Legorburu. (EHBildu) 3. Patxi Ibarguren Etxeberria(EHBildu). 4. Ainara Atorrasagasti Urizar.(EHBildu) 5. Aitor Lukas Solano. (EHBildu) 6. Asier Mingo Arruabarrena.(EHBildu) 7. Amaia Miner Canflanca.(EHBildu) 8. Aitor Huizi Izagirre.(EHBildu) 9. Urko Lazkoz Fernandes.(EHBildu) 10. Oier Agirresarobe Lizaso.(EHBildu) 11. Miren Kistiñe Rodriguez Polaina.(EHBildu) 12. Andoni Amonarraiz Gómez.(EAJ-PNV) 13. José Antonio Cuesta Solé.(EAJ-PNV) 14. Blanca Alberro Aranzasti.(EAJ-PNV) 15. Miryam Vazquez Vecino.(EAJ-PNV) 16. Mikel Gurutzeaga Zubillaga.(EAJ-PNV) 17. Ismael Ganchegui Gonzalez.(EAJ-PNV) 18. Ricardo Crespo Rubio. (PSE-EE) 19. María Jesús Ruiz Ochoa(PSE-EE)
KONTRA	2	1. Jaione Aristregui Cao. (EP-OH) 2. Lurdes López Gorrotxategi. (EP-OH)
ABSTENTZIOAK	0	

Beraz, alegazioei egindako erantzunak onartzen ditugu, esan bezala alegazio egileei jada erantzuna bidali ahal izango zaie, eta **hirigintza hitzarmenak behin-betiko onarpena jaso du.**

OSOKO BILKURAK EMANDAKO EBAZPENA

AURREKARIAK

I. Hernaniko Udalak, 2025eko abenduaren 31ko 2025/03036 Alkatetza Dekretuaren bitartez, erabaki zuen «LEH.03 KANPOZABAL» eremuan proposatzen den hirigintza hitzarmenaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta jendaurrean jartzea, gutxienez 20 eguneko epean.

II. Hitzarmen horren testu osoa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2026ko urtarrilaren 21ean (12. zenbakian) eta jendaurrean egon da 20 egun balioduneko epean. Hitzarmenaren edukia udal web-orrian ere argitaratu da.

III. Jendaurreko epean honako alegazio hauek aurkeztu dira:

1) Mikel Gurutzeaga Zubillagak, Hernaniko Udaleko EAJ-PNV taldearen izenean (2026-0981 erregistro zenbakia).

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

2) Mikel Gurutzeaga Zubillagak, Hernaniko Udaleko EAJ-PNV taldearen izenean (2026-1523 erregistro zenbakia).

3) Ekaitz telleria aldaregiak, Jauregiko Auzo Elkartearen izenean (2026-1692 erregistro zenbakia).

4) M. Jesus Azpiolea Apaolazak, (2026-1751 eta 1786 erregistro zenbakiak).

IV. Aurkeztutako alegazioei erantzuteko udal zerbitzu teknikoak txostena idatzi du, 2026ko apirilaren 20an.

LEH.03 KANPOZABAL EREMUAREN EZAUGARRIAK

Hernaniko Hirigintza Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren indarreko Testu Bateginak bere zehaztapenen artean jasotzen du «LEH.03 KANPOZABAL» hirigintza-eremua.

«LEH.03 KANPOZABAL» hirigintza-esparrua harrobi zahar batena da. Haren hondeaketa-ontzia mende honen hasieratik erabili izan da ibilgailu erabiliak birziklatzeko jarduera baten bidez. Jarduera horrek justifikatu egin zuen 2011ko Arau Subsidiarioen Testu Bateginak lurzoru urbanizaezineko azpiegituren sistema orokor gisa kalifikatzea eremu hori, hondakinen sektoreko araudian eta garai hartan indarrean zeuden Lurralde Antolaketa Gidalerroetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Kalifikazio orokor hori irailaren 16ko 177/2014 Dekretuan sartu da. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartu zen.

Jarduera hura amaitu ondoren, aukera egokitzat jotzen da giza ekintzak asko aldatutako lurzoru horiek berrerabiltzea, hondakinak tratatzeko jarduerari jarraipena emateko. Zehazki, substantzia arriskutsurik ez duten lurrak kudeatu, tratatu eta berrerabiltzeko modalitatean.

2025eko urriaren 4ean Ekotradekk eta Hernaniko Udalak, «Ekoland» proiektua diseinatu eta ezartzeko lankidetza hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen horretako xedapen batzuk hirigintza antolamendu eta kudeaketari eragiten diote, eta hortaz derrigorrezkoa da xedapen horiek jendaurrean jartzea eta berariaz hirigintza hitzarmen batean jasotzea.

GAOn ARGITARATU ZEN HITZARMENAREN EDUKIA

Hitzarmenak honako helburu hauek ditu:

Hernaniko Udalak, ekonomia zirkularreko beharrezko estrategiarekin bat etorriz, bere udalerrian kokapen bat egokitu nahi du, indusketatik datozen lur kutsatuak kudeatzeko, tratatzeko eta berrerabiltzeko jarduera berri bat ezartzeko. Hori guztia bat dator Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak ekonomia zirkularraren arloan behin betiko onartzen dituen 128/2019 Dekretuan hirigintza-plangintzarako loteslea den zuzeneko efizientziaren gidalerroekin.

Hernaniko udalerrian garatzen ari den konpostaje-eredua hartzen ari den dimentsioa kontuan hartuta, eta etorkizunerako aurreikusitakoa kontuan hartuta, udalerriko autokonpostaje instalazioetan erabili beharreko konpostaren eta egituratzailearen biltegi bat kokatzeko espazio egoki bat ezarri nahi da.

Hirigintza-hitzarmen honen xedea da erreferentziako proiektu bat egitea ahalbidetuko duen hirigintza-espazio bat antolatzea, honako helburu hauekin:

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

a. Hernani udalerriko komunitate-konpostajetik eta material egituratzailetik datorren konposta bahetzeko eta biltegiratzeko instalazio bat eraikitzea.

b. Indusketatik datozen eta hondakin ez-arriskutsu gisa (EHZ 170504) sailkatuta dauden lur kutsatuak kudeatzeko eta tratatzeko instalazio nagusi bat eraikitzea, bioerremediatze- eta garbiketa-tekniken eta beste teknologia garbi berri batzuen bidez.

c. Aurreko instalazioaren barruan, jarduera nagusiaren osagarriak diren prozesuak edo jarduerak garatzeko behar diren espazioak eta azpiegiturak gaitzea, hau da, Europako Hondakinen Zerrendako 17. kapituluan jasotako hondakin ez-arriskutsuak kudeatzea eta tratatzea.

d. Hernaniko LEH03 eremuaren barruan lurzati bat entregatzea Udalari, konposta eta egituratzailea biltegiratzeko eremu bat izan dezan.

e. Ekonomia zirkularrean eta materialen berrerabileran oinarritutako erreferentziazko proiektu bihurtzea.

f. Ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak bultzatzea lurzoru kutsatuen tratamenduaren arloan.

g. Hernaniko Udalak energia elektrikoaren ekoizpen, kudeaketa eta merkaturatzearen arloan parte hartzen duen ekimen komunitarioekin aktiboki lankidetzan aritzea.

Hitzarmenean Hernaniko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Indarrean dauden Arau Subsidiarioetako L.E.H. 03 eremuari dagokion aldaketa puntual bat izapidetuko du, lehen estipulazioan adierazitako instalazioak ezarri ahal izateko. Horretarako, beharrezkoak diren hirigintza-zehaztapenak aurreikusiko ditu, honako helburu hauekin:

- Indarrean dagoen udal-plangintzan ezarritako Zerbitzu Azpiegituren Sistema Orokorra berrestea.
- Esparruaren mugaketa doitzea, jarduera berriak behar bezala garatzeko beharrezkoak diren instalazio eta espazio guztiak ezartzeko.
- Arau Subsidiarioetako Arau Orokorrak hondakinen indarreko legera (22/2011) egokitzea, honako hauek ahalbidetzeko:
  - ✔ Instalazio bat eraikitzea, Hernaniko komunitate-konpostajetik datorren konposta eta material egituratzailea bahetzeko eta biltegiratzeko. Onartutako konpostaren gutxieneko heldutasun-maila Rottegrad IV (UNE-EN 16087-2) edo antzekoa izango da. Hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen edozein motatako hondakinen politika eta kudeaketaren eskumen-esparruan.
  - ✔ Indusketatik datozen eta hondakin ez-arriskutsu gisa (EHZ 170504) sailkatuta dauden lur kutsatuak kudeatzeko eta tratatzeko instalazio nagusi bat eraikitzea, bioerremediatze- eta garbiketa-tekniken eta beste teknologia garbi berri batzuen bidez.

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

- ✔ Aurreko instalazioaren barruan, jarduera nagusiaren osagarriak diren prozesuak edo jarduerak garatzeko behar diren espazioak eta azpiegiturak gaitzea, hau da, Europako Hondakinen Zerrendako 17. kapituluan jasotako hondakin ez-arriskutsuak kudeatzea eta tratatzea.

- ✔ Ikerketa- eta berrikuntza-jarduerak bultzatzea lurzoru kutsatuen tratamenduaren arloan.

- Ez onartzea suntsipen termikoko prozesurik, ez ezabaketa-eragiketarik, ez balorizazio eragiketa hauetakoren bat: R01, R02, R06, R08 eta R09, Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. Eranskinean deskribatutakoaren arabera (balorizazio-eragiketak).

- Honako eraikin hauek eraiki ahal izatea, lehenengo estipulazioan ezarritako helburuetarako:

  - ✔ Konpost eta egituratzailerako biltegia, 1.000 m2 (t)-ko gehieneko eraikigarritasuna eta 9 m-ko gehieneko altuera dituena.

  - ✔ Eraikuntza-unitate nagusia: 10.000 m^2 (t)-ko gehieneko eraikigarritasuna, 10 metroko gehieneko altuerarekin estalki-egituraren euskarriraino. Nolanahi ere, eraikuntzen altuera prozesu-beharrei lotuta egongo da, eta teknikoki justifikatu beharko da. Eraikuntza-unitate nagusia gehienez ere 4 eraikinetan bana daiteke (pabiloiak), betiere azalera osoa gehienez 10.000 m^2 (t) bada. Eraikinak igotzeko gehieneko sestra-kota +93 m-koa izango da, eta kasu bakoitzean eraikinen ikusizko inpaktua justifikatu beharko da.

  - ✔ Administrazio-eraikina, aldagelak eta laborategia. Gehieneko eraikigarritasuna: 500 m^2 (t), beheko solairua + 1.

- GI 2132tik LH.03 eremurako ibilgailuen sarbideak egokitzea eta gaitzea, GA.06 sektorean abiaraziko den bide berri baten bidez. Horretarako:

  - ✔ GA.06 sektorea LH.03 eremu horrekin lotuko duen bide bat egingo da, hitzarmenari atxikitako 3. eta 4. planoetan jasotako oinplanoko trazaduraren eta sekzio-tipoaren arabera.

b) Arau-aldaketa horren ondorioz, LEH.03 Eremuaren Hirigintza Arau Partikularra egokituko da, gaur egun Arau Subsidiarioetako B2 Dokumentuko 9. liburuan indarrean dagoena ordeztuko duena.

c) GA.06 Sektoreko Plan Partziala aldatuko da, ibilgailuak GI-2132 errepidetik GA.06 sektoretik LH.03 Eremura sartu ahal izateko, eta sektoreko Tokiko Sistemari dagokion bidea egiteko konpromisoa hartuko da, gehienez ere 2 urteko epean, Arau Subsidiarioen Aldaketa behin betiko onartzen denetik zenbatzen hasita. Bidearen oinplanoko trazadura, hitzarmenari atxikitako 3. planoan jasotakoa izango da.

d) Dagokion eskaera egiaztatu ondoren, legez nahitaezkoa den dokumentazioarekin batera, obra-lizentzia ematea zatikatze-jarduerak kutsatutako eremua eraisteko, betetzeko eta iragazgaizteko faserako, gehienez ere bi hilabeteko epean, eskaera egiten denetik zenbatzen hasita, eta obra hasteko baldintza izango da Eusko Jaurlaritzak emandako lurzoruaren kalitatearen adierazpena lortzea.

Ekotradek, berriz, honako konpromiso hauek hartzen ditu:

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

a) Ekotradek kontratatu eta ordainduko ditu bigarren estipulazioan zehaztutako hirigintza plangintzaren aldaketa puntualerako behar diren dokumentuak.

b) 3.500 m^2-ko partzela bat entregatzea Hernaniko Udalari, hartuneen obra zibilarekin, lurzatiko bertako zerbitzuekin eta E1 kategoriako zabalgune batekin, matrizea bereizi ondoren. Lurzati hori erabiliko da egituratzailea bahetzeko eta biltegiratzeko eta Hernaniko udalerriko komunitateko konpostaje-proiektutik datorren konposta gordetzeko ekipamendua eraikitzeko, dagokion sarbide independentearekin. Ekotradek lurzatian dauden zortasun guztiak bere kargura kentzea erabakiko balu, lurzatiaren azalera 2.500 m^2-koa izango litzateke. Bi aukera horiek Hitzarmenari atxikitako 2. planoko 1. eta 2. orrietan jasota daude.

Lagapena egin aurretik, finka bereizi egingo da eta Hernaniko Udalari emango zaio jabetzan. Transmisio hori egiteko, eskrituren, erregistroaren eta tasen kostua Ekotraderen kontura izango da. Lagapen hori hitzarmen honetan ezarritako araudiaren arabera egingo da. Lagapena 6 hilabeteko epean gauzatuko da, LEH.03 eremuari dagokion Arau Subsidiarioen aldaketa behin betiko onartzen denetik hasita.

c) Kanpozabal eremuan hondakin ez-arriskutsuak kudeatzeko azpiegiturak eraikitzea, paisaia inpaktuak murrizteko eta inguruko enklabe naturalean integratzeko premisekin. Obra-lizentzia lortzeko egikaritze-proiektua udalean aurkeztu aurretik, proposamenaren zirriborroa aurkeztuko da, eskalako infografia gisa, eraikuntza-ezarpenak sortuko duen inpaktu bisuala ebaluatu ahal izateko eta udalak horri buruzko iritzia eman dezan.

d) Hondakinak jaso eta tratatzeko jarduerak pabiloi itxian egingo dira, eta isurpen eta zarata atmosferikoei buruzko araudia betetzen dela bermatzeko beharrezko neurriak izango ditu. Tratamendu-prozesuetatik igaro ondoren, materialak kanpoan metatu ahal izango dira, bidali arte. Ezingo da hondakinak tratatzeko prozesurik egin pabiloien kanpoaldean.

e) Eraikinen estalkietan plaka fotovoltaikoak instalatzea, EKTaren gutxieneko eskakizunen arabera. Ekotradek bere instalazioaren funtzionamendurako beharrezkoa den energia elektrikoa autokontsumituko du, eta soberako energia Hernaniko Udalari edo hark parte hartzen duen erakundeari lagako dio, doan, lurzatian bertan. Aurreko helbururako erabiltzen ez diren gainerako estalkiak udalerriko autokontsumo partekatuko proiektuaren esku jarriko dira, plaka fotovoltaikoak instalatzeko doan lagata, denboran mugarik gabe, bai eta instalazio horri lotutako ekipamenduak, kableak eta obra zibileko elementuak instalatzeko behar diren zortasunak ere.

Ekoizpen fotovoltaikoko sistema hornitzeko, instalatzeko eta mantentzeko inbertsio-gastuak Hernaniko Udalaren kontura izango dira, edo energia elektrikoa ekoizteko, kudeatzeko eta merkaturatzeko hark parte hartzen duen erakundearen kontura.

f) Ibilgailuak LEH.03 eremura GI-2132 errepidetik sartuko dira, GA.06 sektorearen bidez. GA.06 sektorea LEH.03 eremuarekin lotuko duen bide berriaren obrak eta ondoriozko 2 lurzatietarako zerbitzu-harguneak Ekotradek enkargatu eta ordainduko duen proiektuaren arabera egingo dira, Hernaniko Udalak onartu ondoren, eta Ekotradek izendatutako eraikuntza-enpresak egingo ditu, kaudimen tekniko eta profesional egokiarekin, eta horrek ere egikaritzearen prezioa ordainduko du. Hernaniko Udalak egingo du lursailak eskuratzeko eta/edo desjabetzeko beharrezko kudeaketa, eta Ekotradek bere gain hartuko ditu lurzorua eta zortasunak eskuratzeko kostu guztiak, desjabetze-espediente batean lursailei ematen zaien baliora mugatutako zenbateko batekin.

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

Era berean, Ekotradek 71.400 euroko ekarpena egingo du (BEZik gabe) GA.06 sektorean egin beharreko urbanizazio-obrak gauzatzeko. Zenbateko horiek, laugarren estipulazioaren arabera eguneratuko direnak, Arau Subsidiarioen Aldaketa behin betiko onartu ondoren ordainduko dira beti, benetan eraikitako obraren aurrerapen-mailaren proportzioan. Bide hori erabilgarri ez dagoen bitartean, ibilgailuak Galarreta industrialdeko egungo bideetatik sartuko dira instalaziora.

g) Hernaniko Udalak zerbitzu-sareen konexio-puntuak zehaztu ondoren (kanalizazio elektrikoen eta telekomunikazioen obra zibila, ura, saneamendua, gasa...), sare horiek LEH.03 eremuari dagozkion lurzatien oineraino luzatzea Ekotradekk proiektatu eta egikarituko du, Hernaniko Udaleko zerbitzu teknikoek onartu ondoren.

Konexio-baldintzak udalak edo enpresa hornitzaileek ezarriko dituzte. Edozein arrazoirengatik Ekotradek eskatutako zerbitzuen premiak (emariak, potentziak...) kasuan kasuko azpiegituren gaitasunak baino handiagoak badira, azpiegitura horietan egin beharreko aldaketak ere Ekotraderen kontura izango dira. Eremuaren osagarri diren goi- edo erdi-tentsioko instalazio elektrikoen kasuan, eremuaren barruan azalera eraikigarria libratu behar izatearen, zortasunak ezabatu edo aldatu behar izatearen edo ekoitzitako energia fotovoltaikoa banaketa-sarera isurtzeko azpiegiturak egokitu behar izatearen ondorioz eraberritu edo handitu ahal badira, alderdi bakoitzak bere beharren arabera ordainduko du horien kostua. Nolanahi ere, alderdiek elkarrekin jardun ahal izango dute, gastuak adostasunez banatuta. Ekotradek zortasun iraunkorrak ezarri beharko ditu bere lurzatian, inolako murrizketarik gabe, Hernaniko Udalaren alde, baldin eta Hernaniko Udalari laga beharreko lurzatiari dagozkion zerbitzuak bere partzelaren bidez egitea erabakitzen badu.

h) Tratatuko den materiala Hernaniko Udalak une bakoitzean indarrean dauden ordenantzetan ezarritako ordutegian garraiatuko da. Tratatu beharreko materialaren deskarga guztiak pabiloiaren barruan egingo dira.

i) Ekipoen eta instalazioen funtzionamendua arau subsidiarioetan edo ordenantza arautzaileetan zehaztutako orduko parametro akustikoen mende egongo da.

j) Ekotradek 450.000 euroko laguntza ekonomikoa emango du egituratzaile-biltegi bat eta komunitate-konpostajetik datorren konposta eraikitzeko eta hornitzeko (BEZik gabe), hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan komunitateak duen partaidetza gisa. Kopuru hori honela ordainduko da: % 15, Arau Subsidiarioen aldaketari hasierako onespena ematen zaionean, eta gainerako % 85, Arau Subsidiarioen aldaketari behin betiko onespena ematen zaionetik 6 hilabete igaro baino lehen. Eta hori guztia gainbalioei eta hirigintza-estandarrak betetzeari dagokienez inolako eskubide gehigarririk egon gabe.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Saileko arduradunak egindako txostena. Txosten horretatik hau ondorioztatzen da:

Hirigintza-Hitzarmenak 2/2006 Lurzoru eta Hirigintza Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian arautzen dira:

"1.- Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta toki-entitatek hitzarmenak egin ahal izango dituzte, elkartuta edo banan-banan, pertsona publikoekin edo pribatuekin, pertsona horiek laguntza eman dezaten hirigintza-jarduera modurik onenean eta eraginkorrenean garatzeko. Pertsonok ez dute zertan izan kasuan kasuko lursailen jabe.

2.- Aurreko paragrafoan aipatutako hirigintza-hitzarmenak negoziatu, sinatu eta betetzeko orduan, legezkotasun-, gardentasun- eta publizitate-printzipioei jarraitu beharko zaie.

3.- Hirigintza-hitzarmenak era honetakoak izan daitezke, beren xedearen arabera:

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

a) Hirigintza-antolamenduari buruzko hitzarmenak: indarrean den plangintzan zer aldaketa eta nolako edukiarekin egin daitezkeen zehaztea izango dute xede.

b) Hirigintza-egikaritzeko hitzarmenak: hitzarmena egiteko unean indarrean den plangintza kudeatzeko eta egikaritzeko izango diren zehaztapenak eta baldintzak izango dituzte xede.

4.- Erabat deusezak izango dira hirigintza-hitzarmenen klausulak, baldin eta legeen edo erregelamenduen aginduzko arauak, lurraldearen edo hirigintzaren plangintzari buruzkoak barne, era batera edo bestera objektiboki hausten badituzte, haien kontrakoak badira edo haiei iruzur egiten badiete.

5.- Hirigintza-antolamenduari buruzko hitzarmenei dagokienez, plangintza egiteko ahalmen osoa gordeko du beti udalak, interes publikoko arrazoiengatik. Plangintza-aldaketak behin betiko onespenik ez badu, besterik gabe suntsitutzat joko da hitzarmena.

6.- Hirigintza-hitzarmenek izaera juridiko-administratiboa edukiko dute ondorio guztietarako. Akordioa bete-betean dagoela iritzi zaio eskaintza egin eta hitzarmenaren gaia onartzen denean, nahiz eta gainerako baldintza formalak ere bete beharrekoak izango diren.

7.- Erkidegoari kasuan kasuko hirigintza-eraikigarritasuna lagatzeko legezko eginbeharra, betiere salbuespenezko kasuetan eta lege honetan aurreikusitako eran, diruz ordainduta betetzea xedatzen duten hitzarmenek, edo ondasunen eskualdaketak edo trukeak xedatzen dituzten hitzarmenek, dagokien perito-balorazioa jaso beharko dute, udalaren zerbitzu teknikoek eginda edo berretsita.

8.- Udalari dagokio hirigintza-hitzarmenak onartzea. Horretarako, lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da lehenago osorik, eta jendaurrean jarriko da, gutxienez 20 eguneko epean, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

9.- Autonomia Erkidegoko udalerri guztietan, hirigintza-hitzarmenen erregistro bat eta artxibo administratibo bat izango dira. Haietan, hitzarmenen idazpena egingo da, eta hitzarmenen behin betiko testuaren eta, halakorik badute, hitzarmenari erantsitako agirien ale oso bat gordeko da. Udal-erregistroaren arduradunak emandako egiaztagiriak bakarrik sinestamenduko du, lege-ondorio guztietarako, hitzarmenen edukia, eta Jabetza Erregistroan inskribatu ahal izango da egiaztagiri hori.

10.- Pertsona orok izango du artikulu honetan aipatutako erregistroak eta artxiboak kontsultatzeko eskubidea, eta orobat erregistro horietan egindako idazpenen edo artxibo horietan gordetako agirien ziurtagiriak eta kopiak lortzeko eskubidea ere."

«LEH.03 KANPOZABAL» eremuan proposatzen den hirigintza hitzarmena, Hirigintza-antolamenduari buruzko hitzarmena eta Hirigintza-egikaritzeko hitzarmena da, aldi berean. Kasu honetan, alde batetik, proposatzen dena da, «LEH.03 KANPOZABAL» Hirigintza Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren indarreko Testu Bateginean aldaketa puntual baten onarpena izapidetzea eta bultzatzea, adostutako antolamendu batekin. Eta bestetik, aldatuko den hirigintza plangintza kudeatzeko eta egikaritzeko izango diren zehaztapenak eta baldintzak ere baditu xede. Esate baterako, egin behar diren lagapenak, eraikibeharreko azpiegiturak etab.

Hernaniko Udalak, bere gain hartzen dituen konpromisoak bat datoz 2/2006 Lurzoru eta Hirigintza Legeak xedatzen duenarekin.

<u>ALEGAZIOEI EGINDAKO TXOSTENA</u>

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

Udal teknikariak idatziriko txostena kontuan izanik, honako aldaketa hauek proposatzen dira hirigintza hitzarmenean:

Seigarren xedapen hau txertatuko da hitzarmenean:

"Legez ezarritako eskumen-esparruaren barruan, LEH.03 Kanpozabal eremuan garatu beharreko jarduerari dagokion ingurumen-baimena izapidetzean, Udalak Ingurumen Organoari eskatuko dio Jauregi bailara eremuan aire atmosferikoaren kalitatea neurtzeko eta kontrolatzeko estazio bat instalatzeko, organo horrek proiektatutako jardueraren ezaugarrien arabera zehazten dituen parametroak sarean modu irekian monitorizatu ahal izateko. "

Zazpigarren xedapen hau ere txertatuko da hitzarmenean:

"2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriaren arabera Udalak plangintza egiteko ahalmen osoa gordeko du beti, interes publikoko arrazoiengatik. Horrela, Hitzarmen honetan aurreikusitako Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala behin betiko onartzen ez bada, Ekotradekk berariaz, atzera egiteko aukerarik gabe eta behin betiko uko egiten dio proiektatutako aldaketarekin lotutako edozein erreklamazio edo ekintza aurkezteari, dela administrazio-bidean, dela bide judizialean.

Egoera horretan, Ekotradekk eskubidea izango du Udalarengandik jasotzeko aurretik ordaindu duen zenbatekoaren ehuneko hamabosta (%15), hitzarmen honen hirugarren itunean j) letran ezarritakoaren arabera."

Hitzarmen hau onartzeko organo eskuduna osoko bilkura da 7/1985 Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena legearen 22. c) artikuluak xedatzen duenaren arabera.
Kontuan hartu da Tokiko garapen batzordeak 2026ko apirilaren 23ko bilkuran gehiengoz emandako irizpena

Horiek horrela hau erabaki da **GEHIENGOZ**
LEHENA.- Hitzarmenari aurkeztutako alegazioei erantzutea udal teknikariek idatzi duten txotenaren arabera. Txosten hau erabaki honen jakinarazpenari atxikiko zaio.

BIGARRENA.- "LEH. 03 KANPOZABAL" eremuan proposatzen den hirigintza hitzarmena Onartzea honako aldaketa hauekin:

Seigarren xedapen hau txertatuko da hitzarmenean:

"Legez ezarritako eskumen-esparruaren barruan, LEH.03 Kanpozabal eremuan garatu beharreko jarduerari dagokion ingurumen-baimena izapidetzean, Udalak Ingurumen Organoari eskatuko dio Jauregi bailara eremuan aire atmosferikoaren kalitatea neurtzeko eta kontrolatzeko estazio bat instalatzeko, organo horrek proiektatutako jardueraren ezaugarrien arabera zehazten dituen parametroak sarean modu irekian monitorizatu ahal izateko. "

Zazpigarren xedapen hau ere txertatuko da hitzarmenean:

"2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriaren arabera Udalak plangintza egiteko ahalmen osoa gordeko du beti, interes publikoko arrazoiengatik. Horrela, Hitzarmen honetan aurreikusitako Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala behin betiko onartzen ez bada, Ekotradekk berariaz, atzera egiteko aukerarik gabe eta behin betiko uko egiten dio proiektatutako aldaketarekin lotutako edozein erreklamazio edo ekintza aurkezteari, dela administrazio-bidean, dela bide judizialean.

Egoera horretan, Ekotradekk eskubidea izango du Udalarengandik jasotzeko aurretik ordaindu duen zenbatekoaren ehuneko hamabosta (%15), hitzarmen honen hirugarren itunean j) letran ezarritakoaren arabera."

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

4. PLAN EKONOMIKO FINANTZIARIOAREN ONARPENA

Alkatea.-Honekin laugarren puntura pasako gara. Plan ekonomiko finantzarioaren onarpenari dagokiona. Hemen, aipatu, 2/2012 Lege Organikoaren baitan hartu beharreko neurria dela. Arau fiskalen legea da. Hau bada 2012an zegoen krisia bete-betean zegoen garaia eta Espainiatik erabaki zen lege bat administrazio publikoa nolabait ere bere gastuak-eta kontrolatzeko. Lege honek markatzen duena da administrazio publikoak, kasu honetan udal batek, zenbat gastatu dezakeen, gehienezko bat; eta urte batetik bestera egin dezakeen gastua zenbat igo daitekeen. Hemen, egia da, lege hau sortu zela bazirelako udal batzuk krisi sakona zutenak eta zorpetze ikaragarria zutenak; baina lege honek ez du diskriminatzen egoera ekonomiko larria duten udalen edo ez daukagunon artean. Eta denok bete behar dugu.

Kasu honetan, 2024tik 2025erako aldaketa horretan, 2025ean gure gastua handiagoa izan da eta ez du lege hori bete, lege horrek markatzen zuen portzentaia baino handiagoa izan da gastua, eta honekin 1/2013 Foru Arauak esaten duena da gastu arau hori betetzen ez baldin badugu, bi urtetarako plan ekonomiko finantzario bat prestatu behar dugula, osoko bilkuran onartu behar dugula eta Aldundiari aurkeztu behar diogula.

Orain arte edo orain urte gutxira arte aplikatu ez den kontu bat da. Batetik, pandemia garaian salbuespen egoeran ginen hartan lege honen aplikazioa bertan-behera utzi zelako eta, bestetik, Gipuzkoan eta Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan, salbuespen bat bazegoen lege hau interpretatzerako garaian: inbertsioak edo gastuak egiten bagenituen aurreko urtetatik gerakinean genuen diruarekin, hau da, Udalak jada bazeukan diruarekin, horiek ez zuten konputatzen gastu arauari begira. Salbuespen hori aplikatzeari utzi dio Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta ondorioz, herri asko gara plan ekonomiko finantzario hau onartu behar dugunak. Gaur gaurkoz, iaz eta 2026an ofizialki onartu dugunak hogei bat herri bagaude tamaina desberdinetakoak.

Honekin zer egiten dugu? Bi urtetarako plan bat, non udalak izango dituen diru-sarrerak eta gastuak definitzen ditugun. Honek esan nahi du, gastu araua gainditu izanak edo bete izanak, esan nahi du gehiegi gastatu dugula? Ez, inondik inora ere ez du hori esan nahi. Esan nahi du zerbitzuak, kasu honetan, hobetu ditugula, gure zerbitzu kontratuek igoerak izan dituzte, batetik, zerbitzuak handitu edo hobetu ditugulako, beste kasu batzuetan, eta etxez etxeko zerbitzua ekarri nahi dut gogora, langileen baldintzak asko hobetu ditugulako, eta bestetik, batez ere 2025ean igoera hori izan da inbertsio errealen exekuzioa asko handitu delako. Inbertsioetarako proiektuak 2024arekin alderatuz, exekuzioa ia bikoiztu egin da.

Orduan, horrek ez du esan nahi jarduna egokia izan ez denik. Baloratuko nuke, gainera, jarduna oso egokia izan duela urteetan eta jarraituko duela izaten, Hernaniko Udalak, honek daukagun zerbitzu estaldura hobetzeko ematen digulako herrian dauden beharrei, inbertsioei, erantzuteko aukera ematen digulako. Eta epe ertainean ikusten diren inbertsio potoloak egiteko aukera errealak badaudelako eta egingarritasuna ikusten delako.

Egin genuena zen orain dela aste batzuk batzordean aurkeztu genuen plan ekonomiko finantzario hau, pasa den astean Antolakuntza Batzordean ere diktaminatu genuen osoko bilkurara ekartzeko, hor dago egiten den diru-sarreren aurreikuspena, hor diru-sarrerak azkenean udal baten finantzazioa oso lotuta dago Foru Aldundiak egiten duen ekarpenen araberakoa da. Ekarpen hori zuzenean lotuta dago egoera ekonomikoari. Egoera ekonomikoa lotuta dago mundu mailan dauzkagun erronkekin ere, arantzelak direla, gastu mugak direla... eta horiek guztiek eragiten dute zuzenean. Baina, txostenean teknikoki aipatzen dena da Hernaniko Udalaren egoera ekonomikoa egonkorra dela eta

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

Hernanin dagoen ehun industrialak, aurreikusten dela, daukan sendotasun horri eustea eta, nolabait ere, Udalaren diru-sarrerak ere bermatuak egotea. Beti ere, zuhurtzia irizpide batekin.

Aurreikusten dena da, baita ere, eskatu ditugun diru laguntza guztiak erabiltzeko moduan izango garela eta ez ditugula itzuli behar izango eskatu ditugun proiektuen erritmoa egokia izaten ari delako eta betetzen ari garelako. Eta, horrez gain, bi urtetarako proposatzen dugun plan honetan, martxan ditugun zerbitzu guztiak mantenduz, aparte egiten dugun inbertsio plana da eta, inbertsio plan honetan, lau irizpide garrantzitsu hartu ditugu kontutan: auzoek dituzten beharrak eraberritzen edo behar horiek kubritzen jarraitzea, irisgarritasunari lehentasuna ematea, ekipamendu publiko berri zein ditugunak egokitzea, iruditzen zaigulako ekipamendu publiko sare potente eta garrantzitsu bat edukitzea Hernaniko Udalak oso garrantzitsua dela, azken batean unibertsaltasuna eta irisgarritasuna eskaintzen zaielako herritar guztiei zerbitzuekin batera. Eta, bestea, mundu mailan daukagun erronka bat Udaletik erantzuten ari garena: trantsizio energetikoa. Partida desberdinak ditugu proiektu honetara bideratuta. Batetik, energiaren aurrezpena edo kontsumoaren aurrezpena egiteko, eta bestetik, energia berriztagarria ekoizteko.

Hortaz, honek guztiak jarraitzen du legegintzaldiko planaren printzipioak erantzuteko moduan. Bi urtetarako 21 milioi inguruko inbertsioetarako gaitasuna izango dugu, nahiz eta plan ekonomiko finantzarioan egon, eta hori da pixka bat azalpena. Ez dakit honen inguruan zerbait aipatzeko, galderarik edo zalantzarik badagoen. Horiek nire azalpenak. Zerbait zehatzagoa balitz, batzordean ere kontu hartzaileak azalpena eman zuen eta zerbait balitz ere, hemen dago erantzuteko moduan.

Ez badago ezer aipatzeko, zuzenean bozkatzera pasako gara. Plan ekonomiko finantzarioaren onarpenaren aldeko botoak? EH Bildu, EAJ eta Euskal Sozialistak udal taldeenak. Kontrako botoak? Ez dago kontrako botorik. Eta abstentzioak? Elkarrekin-Podemos udal taldearenak. **Beraz, plan ekonomiko finantzarioa onartuta gelditzen da.**

Bozketa

	Kopurua	Izen-abizenak
ALDE	19	20. Xabier Lertxundi Asteasuinzarra. (EHBildu) 21. Itsaso Lekuona Legorburu. (EHBildu) 22. Patxi Ibarguren Etxeberria(EHBildu). 23. Ainara Atorrasagasti Urizar.(EHBildu) 24. Aitor Lukas Solano. (EHBildu) 25. Asier Mingo Arruabarrena.(EHBildu) 26. Amaia Miner Canflanca.(EHBildu) 27. Aitor Huizi Izagirre.(EHBildu) 28. Urko Lazkoz Fernandes.(EHBildu) 29. Oier Agirresarobe Lizaso.(EHBildu) 30. Miren Kistiñe Rodriguez Polaina.(EHBildu) 31. Andoni Amonarraiz Gómez.(EAJ-PNV) 32. José Antonio Cuesta Solé.(EAJ-PNV) 33. Blanca Alberro Aranzasti.(EAJ-PNV) 34. Miryam Vazquez Vecino.(EAJ-PNV) 35. Mikel Gurutzeaga Zubillaga.(EAJ-PNV) 36. Ismael Ganchegui Gonzalez.(EAJ-PNV) 37. Ricardo Crespo Rubio. (PSE-EE) 38. María Jesús Ruiz Ochoa(PSE-EE)
ABSTENTZIOAK	2	1. Jaione Aristregui Cao. (EP-OH) 2. Lurdes López Gorrotxategi. (EP-OH)

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

KONTRA	0	

OSOKO BILKURAK HARTUTAKO ERABAKIA

2025eko aurrekontuaren likidazio espedientean jasota dagoen kontu-hartzailearen txostenaren arabera, urte horretan udalak ez du bete 2/2012 Lege Organikoan jasotako arau fiskalen gastu araua.

Gipuzkoako toki erakundeen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duen otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauaren 5. artikuluak xedatzen duenez, ez bada betetzen aurrekontu egonkortasuneko helburua, zor publikoko helburua edo gastu araua, plan ekonomiko-finantzario bat egin beharko da, jarduneko ekitaldian eta hurrengoan helburu horiek eta gastu araua bete ahal izateko.

Aipatutako foru arauaren 5 bis artikuluaren 2. paragrafoak ezartzen duenez, onartutako plan ekonomiko-finantzarioak Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaliko zaizkio, horrek jarraipena egin diezaien. Aipatutako 5 bis artikulu horren 3. paragrafoak ezartzen duenez, berriz, onartutako planak entitatearen aurrekontuen moduan emango dira argitara.

Aztertuta Alkateak proposatutako plan ekonomiko-finantzarioaren proiektua.

Ikusita kontu hartzaileak egindako txostena.

Kontuan hartu da Antolaketa eta Ogasun batzordeak 2026ko apirilaren 23an egindako bilkuran gehiengoz emandako irizpena

Horiek horrela **Hernaniko Osoko Bilkurak gehiengoz erabaki du:**

Lehenengoa.- Onartzea udalaren Plan Ekonomiko-Finantzarioa 2026-2027 epealdirako (eranskin gisa agertzen da), eta aplikatzea haren 6. atalean jasotako neurriak. Era berean, aurrekontuaren gauzatzeak desbideratze nabarmenak ematen baditu planaren aurreikuspenekin alderatuta, udalak konpromisoa hartzen du beharrezkoak diren neurri gehigarriak aplikatzeko bi urteetan arau fiskalak betetzen direla ziurtatzeko.

Bigarrena.- Bidaltzea Plan Ekonomiko-Finantzarioa Gipuzkoako Foru Aldundiari, haren jarraipena egin dezan.

Hirugarrena.- Argitaratzea Plan Ekonomiko-Finantzarioaren onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, soilik informazio ondorioetarako.

5. HERNANIKO UDALEKO ZARATA-MAPA EGUNERATUAREN BEHIN BETIKO ONARPENA

Alkatea.-Bosgarren puntura pasako gara. Kasu honetan, Hernaniko Udaleko zarata mapa eguneratuaren behin-betiko onarpena litzateke eta Ainarak egingo digu azalpena.

Ainara Atorrasagasti: Kaixo, arratsalde on.

Zarata maparen behin-behinekoa onartu genuen eta jendaurrean egon da. Denbora horretan guztian ez da alegaziorik egon eta dakarkigun zarata mapa hemen pasa zen behin-behineko berdina da, aldaketarik gabe. Honekin orain zarata mapa honek ematen digun informazioan oinarrituta, datozen hilabeteetan helburua da ekintza plan bat egitea. Ekintza plan horretan zarata gutxitzeko zer neurri hartu behar diren zehaztu eta praktikan jartzeko pausoak emateko ekintza plana izango da. Adibidez, babes-pantaila jartzeko eskatzea, trafikoaren kudeaketa, abiadura murrizketak, trenbide eta industria eremuen trataera espezifikoa, hiri zerbitzuen ordutegiak egokitzea, aisialdi-guneen kontrol neurriak, eta horrelakoak.

Orduan, esandakoa, zarata mapa behin onartuta, ekintza planarekin hasiko gara.

Alkatea: Eskerrik asko, Ainara.

Ez dakit honen inguruan badagoen zerbait aipatzeko. Bestela, zuzenean bozkatzera pasako gara.

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

Hernaniko Udaleko zarata mapa eguneratuaren behin-betiko onarpenaren aldeko botoak? **Aho-batez onartu da.**

OSOKO BILKURAK HARTUTAKO ERABAKIA

Hernaniko Udaleko Osoko Bilkurak 2025eko abenduaren 16an egindako bilkuran, besteak beste, Hernaniko Udaleko Zarata-Mapa eguneratuari hasierako onarpena eman zion eta mapa hori, hilabetez, jendaurrean jarri zuen bai udaleko web orriak baita Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean zein Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Espedientea jendaurrean egon den epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Kontuan hartu da Tokiko garapen batzordeak 2026ko apirilaren 16ko bilkuran **GEHIENGOZ** emandako irizpena

Horiek horrela, hau erabaki da: **AHO BATEZ**

Hernaniko Zarata-Mapa eguneratuari behin betiko onarpena ematea.

6. HIRIGINTZA ANTOLAMENDUAREN OSAGARRI DEN ORDENANTZAREN ALDAKETA. BEHIN BETIKO ONARPENA

Alkatea.-Seigarren puntura pasako gara. Hirigintza antolamenduaren osagarri den ordenantzaren aldaketari ere behin-betiko onarpena ematea. Hau ere Ainarak azalduko digu.

Ainara Atorrasagasti: Hau berdin. Behin-behinekoa pasatu zen, kasu honetan jendaurrean egon den denbora honetan egon dira alegazio batzuk. Alegazio gehienak ez dira onartu, norberaren galderak eta zalantzak izan dira gehienbat; baina aldaketa bat onartu da, kasu honetan, aplikazio eremuari buruzko justifikazioa osatzeko eskatzen zen. Hori egin dugu, hobeto azaltzen da aldaketa honen justifikazioa. Eta, horrez gain, aprobetxatu da laugarren tituluko 10. artikulua egokitzeko. Hemen, berez, lehen udal etxebizitza tasatuen onuradun izateko baldintzetako bat eta, garrantzitsuena, da lehendik etxebizitza bat ez edukitzea. Hemen, sartzen dena da aukera hori izatea, nahiz eta etxebizitza bat izan, eta baldintza moduan jartzen da esleipenean ez badira etxebizitza denak egokitu, orduan edukitzea aukera sartzeko; eta beti ere, bere lehengo etxebizitza tasatu bihurtuz. Helburua da jendeak etxebizitzaz aldatzeko aukera edukitzea eta parke publikoa handitzen joatea. Hori da gehitzen dena, baita ere.

Horrekin, behin-betiko onarpena dakarkigu.

Alkatea: Eskerrik asko, Ainara.

Ez dakit honen inguruan zerbait komentatzeko badagoen. Ez badago ezer, zuzenean bozkatzera pasako gara. Hirigintza antolamenduaren osagarri den ordenantzaren aldaketarekin behin-betiko onarpena ematearen aldeko botoak? **Hau ere aho-batez onartzen da.**

OSOKO BILKURAK HARTUTAKO ERABAKIA

Ordenantza horretan aldatzen diren puntuak honako hauek dira:

1.- Lokal eta etxebizitza berrien gutxieneko azalera III.2-2.2 artikuluan, batez besteko tamainaren kontzeptua ezabatzen da etxebizitza bihurtu nahi diren lokalen kasurako.

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

2.- Aplikazio eremuaren aldaketa. Egungo Ordenantzaren Hirugarren Tituluko Bigarren Kapitulura (III.2) atxikitako Taula aldatu da.

3.- Lokalen segurtasun-baldintzak. Ordenantzaren arabera, segurtasunari dagokionez, aplikatzekoak dira "Eraikuntza Ordenantzak" Lehen Tituluko (I) I.2-9.1 eta I.2-9.2 artikuluetan jasotzen diren zehaztapenak. Bertan, I.2-9.2 artikuluko lehenengo puntuan xedatzen dira beheko-solairuan kokatutako etxebizitzen baoen baldintzak.

4.- Etxebizitza berrien salmenta- eta errenta-prezioa. proposatzen da birgaituko diren etxebizitza berrien gehieneko salmenta prezioa mugatzea erabilera-aldaketaren udal baimena erdiesteko unean eta etxebizitzaren jabetza eskualdatzeko unean indarrean dagoen araudian Jabetza osoko araubide autonomikoko etxebizitza tasatuentzat ezarritako erreferentziazko preziora.

5.- Etxebizitza-erabileraren baimenak dituen Hirigintza Kargak. III.2-4 Atala aldatzen da.

6.- III. Tituluari Kapitulu berri bat gehitu zaio etxebizitzarenak ez diren erabileretarako xedatutako behe solairuko lokaletan aparkaleku kolektibo erabilera nola ezarri behar den arautzeko.

Hernaniko Udalak 2025eko urriaren 28an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:
"BAT.- Udal Ordenantza multzoaren I. Liburuan hirugarren Aldaketari, arestian adierazitako edukiarekin,hasierako onarpena ematea.
BI.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrialdean argitaratzea eta jendaurrean jartzea bi hilabetez. Interesdunei ere bi hilabeteko entzunaldia ematea."

Erabaki hori 219 zenbakia duen azaroaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Alegazioak aurkezteko epean 9 alegazio aurkeztu dira. Alegazio horiek aztertu dira eta alegazio horien erantzuna atxikitzen den alegazio txostenean jasotzen da.

Alegazioen azterketaren ondorioz, "3.1.2 Aplikazio eremuaren aldaketa" artikulua aldatu da, bertan datorren motibazioa garatu egin baita, aurkeztutako alegazio bati erantzuteko asmoz.

Bestalde, udalak berak, ordenantzaren VI. Tituluaren (**UDAL ETXEBIZITZA BABESTUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAN), VI-10 artikuluan aldaketa bat txertatu du,** Udal Etxebizitza Tasatuen (UET) onuraduna izateko baldintzen inguruan.

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena 133 artikuluan arautzen du herritarren parte-hartzea lege eta erregelamendu mailako arauak egiteko prozedura.

Artikulu horretan araututakoa bete zen esku artean dugun ordenantza hau egiteko.

Bestalde Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak , Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena, 49 artikuluan Tokiko ordenantzak onartzeko honako prozedura hau arautzen du:

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

a) Udalbatzak hasierako onarpena ematea.

b) Jendaurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, gutxienez hogeita hamar egunez, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

c) Epearen barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak ebaztea eta Udalbatzak behin betiko onartzea.

Kontuan hartu da Tokiko Garapen batzordeak 2026ko apirilaren 23ko bilkuran aho batez emandako irizpena

Horiek horrela Hernaniko Osoko bilkurak aho batez erabaki du

BAT.- Egindako alegazioak onartu edo ukatzea jarraian atxikitzen den alegazio txostenaren arabera.

BI.- Udal Ordenantza multzoaren I. Liburuan hirugarren Aldaketari, arestian adierazitako edukiarekin Ordenantzari behin betiko onarpena ematea, onarturiko alegazioen ondorioz egindako aldaketekin.

HIRU.- Akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko web orrialdean argitaratzea eta interesdunei erabaki honen berri ematea

7. ELKARREKIN PODEMOSEK APIRILAREN 14AREN HARIRA AURKEZTUTAKO MOZIOA : MEMORIA DEMOKRATIKOA, 1931KO KORPORAZIOARI AITORTZA ETA BALIO ERREPUBLIKANOEN DEFENTSA

Alkatea.-Mozioen tartera pasako gara. Gaur bi mozio dauzkagu. Lehenengoa Elkarrekin-Podemos udal taldeak aurkeztutakoa da, apirilaren 14aren harria aurkeztutako mozioa. Zuena da hitza.

Lourdes Lopez: Kaixo.

Bozeramaileen Batzordean bildu gara gaur goizean eta aipatu da mozioan zehazten diren bi puntu kenduko bagenitu, apirilaren 14etan errepublikako bandera udaletxeko balkoian zintzilikatzea eta monarkia vs errepublika erreferenduma eskatzea, onartuko litzakeela. Beraz, erabaki dugu bi puntu horiek ezabatzea. Mozioa irakurriko dut.

(Mozioa).

Alkatea: Eskerrik asko. Ez dakit honen inguruan zerbait aipatu nahi den.

Mikel Gurutzeaga: Lourdesek esan duen bezala, adostu dugu hiru puntu horiek bozkatzea.

Komentatu dut goizean, baina jendaurrean azaltzeko, arrazoi-azalpenetan ez gaude guztiz ados. Adibidez, ez da islatzen guretzat egokiagoa litzatekeen nazio aniztasunaz hitz egitea, lurralde aniztasunaren partez. Nik uste momentu hartan Euskal Herriaren nahia harago zihoala. Orduan, alde horretatik, arrazoiak ez ditugu guztiz ontzat ematen. Baina beno, esan dugun bezala, alde bozkatuko dugu.

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

Euskal Autonomiako Estatutua ere, nola onartu zen ere ez da asko aipatzen. Gora-beherak egon ziren 1931tik 1936ra, eta hori ere guretzat garrantzitsua da.

Dena dela, irmo aitortzen eta omentzen ditugu gure arbasoak, 1931ko hernaniar guztien ordezkariak, eta demokraziaren alde egin zuten lan izugarria, eta diktaduraren ondorioz jazarpena, errepresioa, erbestea edo hilketa bera pairatu zuten ordezkari guztiak. Gainera, asko eta asko hemen gaudenon senide ziren. Orduan, horretan guztiz ados eta onartu diren lehenengo hiru puntu horien alde bozkatuko dugu.

Alkatea: Eskerrik asko, Mikel. Gainontzekook ez daukagu ezer esateko. Beraz, zuzenean bozkatzera pasako gara. Elkarrekin-Podemosek, gero Bozeramaile Batzordean udal talde guztiek adostutako memoria demokratikoaren eta 1931ko korporazioari aitortza egiteko mozioaren aldeko botoak? **Aho-batez onartzen da.**

OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO MOZIOA

-Arrazoi azalpena

Apirilaren 14an, 1931n Bigarren Errepublikaren aldarrikapenaren urteurrena ospatzen da; garai honek aurrerapauso historikoa ekarri zien demokraziari, eskubideei eta Estatuaren modernizazioari. II. Errepublikak herritarren subiranotasunean oinarritutako esparru politiko berri bat ekarri zuen, eta hezkuntzan, kulturan, lan-eskubideetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean eta Estatuaren laikotasunean erreforma garrantzitsuak bultzatu zituen.

Era berean, lurralde aniztasuna aitortu zuen, lehenik Kataluniako Estatutua eta, ondoren, Eusko Autonomia Estatutua onartuz.

Gure udalerrian, beste askotan bezala, gertaera historiko hura itxaropen eta herritarren parte-hartzearekin bizi izan zen. 1931ko apirilaren 12an herritarrek demokratikoki hautatu zuten udal korporazioa, eta honek etorkizun justuago baten ilusio kolektiboaren testuinguruan hartu zuen kargua. Korporazio hark funtsezko erronkei egin behar izan zien aurre, hala nola langabeziari edo hezkuntzarako sarbide faltari, gehiengo sozialaren ongizaterantz bideratutako politika publikoak sustatuz.

Hala ere, prozesu demokratiko hori bortizki eten zen. Legez hautatutako ordezkari publiko haietako asko gero jazarriak, errepresaliatuak, espetxeratuak, erbesteratuak edo hilak izan ziren estatu-kolpearen eta ondorengo diktadura frankistaren ondorioz. Haien oroimena gure herriaren ondare demokratikoaren parte da.

Gaur egun, hamarkada asko igaro ondoren ere, beharrezkoa da oraindik memoria demokratikoa aldarrikatzea, askatasuna defendatu zutenei aitortza egitea eta, ahal den neurrian, bizi izan duten ahanztura konpontzea. Euskadin aurrerapauso garrantzitsuak eman dira norabide horretan, nahiz eta oraindik egitekoa badagoen.

Era berean, bandera errepublikanoak garai historiko hura ez ezik, hura inspiratu zuten balio demokratiko, sozial eta justiziazkoak ere sinbolizatzen ditu, baita legearen aurrean berdintasunean oinarritutako estatu-eredu baten aldeko herritarren hautua ere; kontrol demokratikoari ihes egiten dion erakunderik ez dagoen estatu-eredua, hain zuzen.

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

Horregatik guztiagatik, eta apirilaren 14a data sinboliko hutsa ez ezik, erakunde publikoetatik balio demokratikoak indartzeko aukera gisa ulertuta,

Horiek horrela Hernaniko Udaleko Osoko bilkurak aho batez erabaki du:

1. Udalak bere konpromisoa berretsi dezala memoria demokratikoarekin, giza eskubideekin eta berdintasun, justizia sozial eta herritarren parte-hartze balioekin, eta horien hedapenean lagunduko duten ekimenak bultzatu ditzala herritarren artean.

2. 1931n modu demokratikoan hautatutako udal korporazioa aitortu eta omendu dadila, bai eta estatu-kolpearen (1936) eta ondorengo diktaduraren ondorioz jazarpena, errepresioa, erbestea edo heriotza pairatu zuten kide guztiak ere.

3. Udalean oroipen-plaka bat jar dadila, udal korporazio hartako kideen izenak jasoko dituena, memoria, aitortza eta erreparazio demokratiko-ekintza gisa.

8. EHBILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GUNE HISTORIKOA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN (GHBPB / PERCH) INGURUKO MOZIOA

Alkatea.-Beste mozio batera pasako gara. Kasu honetan, EH Bildu udal taldeak aurkeztu duen mozioa da. Gure alde zaharra edo gune historikoa birgaitzeko plan bereziari dagokiona. Itsasok azalduko digu.

Itsaso Lekuona: (Mozioa).

Alkatea: Eskerrik asko, Itsaso. Ez dakit honen inguruan zerbait aipatzeko badagoen. Ez badago ezer, zuzenean bozkatzera pasako gara. EH Bildu udal taldeak gune historikoa birgaitzeko plan bereziaren inguruan aurkeztutako mozioaren aldeko botoak? **Hau ere aho-batez onartzen da.**

OSOKO BILKURAK ONARTUTAKO MOZIOA

Hernaniko Udalak azken urteetan lan sakona egin du Gune Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren (edo PERCH delakoaren) lanketan, gure herriko alde zaharra egungo errealitate urbanistiko, sozial eta bizitegi-beharretara egokitzeko helburuarekin.

Lanketa horretan agerian geratu da arazo estruktural bat: alde zaharreko eraikin askoren egoera juridikoa eta urbanistikoa baldintzatuta dagoela gaur egun indarrean dagoen araudiagatik. Izan ere, eraikin horietako asko "ordenaziotik kanpo" daude, eta horrek ondorio zuzen eta larriak ditu: zailtasunak birgaitze lanak egiteko, oztopoak irisgarritasuna bermatzeko (igogailuak jartzerako orduan esaterako), eta mugak teilatuen edo egituraren beharrezko egokitzapenak egiteko.

Egoera honen jatorria Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren 544/1995 dekretua da, Hernaniko alde zaharra Kultura Ondasun kalifikatzen duena, Monumentu Multzo kategorian. Dekretu horrek ezartzen du Hernaniko alde zaharreko eraikinek gehienez "beheko solairua gehi hiru solairu" izan behar dutela. Hala ere, arau hori onartu zenean, 1995en, gaur egun "ordenaziotik kanpo" dauden etxebizitza horietako asko jada existitzen ziren, eta, gainera, udal lizentzia bidez eraikiak izan ziren. Hau da, legez egindako eraikinak dira, garaiko araudia eta baimenak errespetatuz gauzatuak.

Ondorioz, gaur egungo araudiak egoera paradoxiko eta bidegabea sortzen du: bere garaian legez eraikitako etxebizitzak gaur egun mugatuak daude, ezin baitira behar bezala egokitu ezta hobetu ere. Horrek zuzenean eragiten du herritarren bizi-kalitatean, eta oztopatzen du etxebizitza-parkea eguneratzea eta mantentzea.

ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9

Hernaniko Udala

Testuinguru honetan, Hernaniko Udalak PERCH berriaren proposamena landu eta aurkeztu du, hain zuzen ere egoera horri irtenbidea emateko eta gaur egun "ordenaziotik kanpo" dauden eraikinak kontsolidatzeko helburuarekin. Hala ere, proposamen hori Eusko Jaurlaritzan aurkeztu ondoren, ezezkoa jaso du, indarrean dagoen dekretua ez delako betetzen.

Egoera honek agerian uzten du arazoaren muina: gaur egungo araudia bera dela eguneratu beharrekoa, ez Hernaniko errealitatea. Are gutxiago gaur egungo testuinguruan, etxebizitza larrialdi betean baikaude. Gazteek ezin dute emantzipatu, alokairuak gora doaz, eta etxebizitza eskuragarriaren gabezia gero eta handiagoa da.

Egun 40 eraikin daude aipatzen dugun "ordenaziotik kanpo" izaerarekin Hernaniko alde zaharrean. Horien artean 82 etxebizitza dira egoera juridikoa eta urbanistikoa baldintzatuta dutenak eta gaur egun horietan 175 pertsona daude erroldatuta. Kantitateak ez dira oharkabean pasatzekoak inondik ere.

Ezin dugu onartu erabilgarriak diren etxebizitzak administratiboki baztertzea edo mugatzea. Alderantziz, etxebizitza horiek balioan jarri behar dira, egokitu, birgaitu eta bizigarritasun baldintza duinak bermatzeko. Ez da ulertzen araudi batek, errealitatea egokitu beharrean, errealitatea ukatzea. Ez da politika arduratsua, eta ez du herritarren interes orokorrari erantzuten.

Gainera, etxebizitza hauek Hernaniko errealitate historiko eta urbanistikoaren isla zuzena dira. Gure herriaren bilakaeraren lekuko dira, eta, beraz, ondare bizia osatzen dute. Haien egokitzapena ahalbidetzea ez da soilik gaur egungo beharrei erantzutea, iraganarekiko errespetuz jokatzea ere bada.

Beharrezkoa da gaur egungo errealitate urbanistikoa eta soziala aintzat hartuko duen marko malguago bat ezartzea, eta, bereziki, legez eraikitako etxebizitzen erregularizazioa eta egokitzapena ahalbidetzea.

Ez gaude soilik arau tekniko bat aldatzearen aurrean. Etxebizitza eskubidea bermatzeko, herritarren bizi baldintzak hobetzeko eta gure ondarea errespetatzeko urrats bat emateaz ari gara. Eta horretan, ezin dugu gehiago itxaron.

Ondorioz, azaldutako guztia kontuan hartuta, Hernaniko **Osoko Bilkurak honako eskaera luzatzen dio Eusko Jaurlaritzari aho batez :**

Indarrean dagoen araudia, zehazki 1995eko dekretua, berrikusi eta eguneratu dezala, Hernaniko alde zaharraren benetako egoera islatzeko.

9. GALDERA ETA ESKARIAK

Alkatea.- Honekin, azken puntura goaz. Galdera eta eskaeren puntura. Ez dakit galderarik edo eskaerarik ba ote dagoen...

Ez badago ezer, hemen emango diogu amaiera apirileko osoko bilkurari.

Hernanin 2026ko apirilaren 28an

Idatziz gera dadin eta ondorioak izan ditzan egin dut ziurtagiri hau, alkatearen aginduz eta bere oniritziarekin

O.E

HERNANIKO ALKATEA

Ziurtagiri hau elektronikoki sinatuta dago: osotasuna eta egiazkotasuna, QR kodearen bidez edo azpiko egoitza elektronikoaren bidez egiazta dezakezu.

EKS | CSV: ESKU30c9327f-7fd7-431a-966a-e8eff646b8d9
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04010
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04010